

Martxoaren 12an burutuko da III Sagardo Eguna Ermuan

Eguerdiko 12:30ean egingo da txotx eta horrekin batera ekingo zaio Ermuko III. Sagardo Egunari. Gazte Asanbladak antolatutako jarduera honetan berrikuntzak ere egongo dira: edalontziaren prezioa bateratuko da eta porra abiatuko dute.

Euskal giroa sustatzea, Ermuko giroa piztea eta belaunaldi ezberdinetako lagunen arteko harremanak sendotzea. Horiek hirurak dira Ermuko Sagardo Egunak dituen helburuak, antolatzaileen esanetan. Horretarako egun osoko egitaraua prestatu dute martxoaren 12ra-ko, larunbata.

Goizeko jarduna 12:30ak eta 14:30ak bitartean burutuko da plazan, tarte horretan egongo baita zabalik sagardo-gunea, eta Eskilarapeko Ate-neoak eta Alain Kortazarrek egingo dute txotx.

Arratsaldean, berriz, 18:30ean ekingo diote lanari, eta sagardo botila guztiak hustu arte arituko dira. Jarraian, 19:30ean, trikipoteoa hasiko da eta egunari amaiera emateko, Gauargi tal-

deak erromeria eskainiko du plazan gaueko 23:00etan.

Nork asmatu porra?

Beste urteetan bezala, euskal jantziak janzteko deia egin dute antolatzaileek, baina hirugarren edizio honetan hainbat aldaketa ere egongo da. Adibidez, prezio bakarra egongo da sagardoa dastatzeko: 6 euro. Diru kopuru horren truke, edalontzia, zapia eta pintxoak jasoko dute bertaratzen direnek.

Beste alde batetik, porra egingo da, eta zenbat sagardo litro edan diren goizean asmatu beharko da. Apustua euro batekoa izango da eta asmatzen duenak Gazte Egunekeo bazkarirako bi laguntzako tiketa eta bi sagardo bo-

tila jasoko ditu (erromerian jakinara-ziko da irabazlearen izena).

laz egin zuten bezala, promozio-bideoa grabatzen ari dira antolatzaileak eta martxoa hasieran zabalduko dute sare sozialetan eta Whatsapp bitartez, herri osoari ospakizunaren berri emateko xedez.

Ekimen guzti horien antolaketan Gazte Asanbladako 15 eta 20 gazte inguru parte hartzen ari dira, hala nola norbanako batzuk ere. Aurtan, gainera, herriko hainbat talde eta elkarteri laguntza eskatu diete.

Dorleta Vidal

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

**es
egolek**

electrizaritatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Quetzal

[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

IZASKUN TXURRUKA

peluqueriaizaskun

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com